

kitto!

...eta

785 zkia. 2011-XII-2

ASTEKARIA

TOKIKOM



Mississippiko doinuak Ego txikia aberasteko




PRESBIZIAREN KIRURGIA

Plaza Barria, 2 - 2º - Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



IRAZABAL
clínica dental



Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552

**Badirelako gauza batzuk galtzea komeni ez direnak...
IRAZABAL KLINIKAN txikienen aho-hortzetako
prebentzioaren alde egiten dugu apustu.
Egizuz **PADI**-ren azterketak.**

2 urte eibartarron zerbitzura


EGUNEKO MENUA: 14'5 euro (BEZ barne)
ASTEBURUKO MENUA: 20 euro (BEZ barne)
MENU DEGUSTAZIOA: 35 euro (BEZ barne)
TALDEENDAKO MENUAK

RAZIOAK BARRAN

*Eskerrik
asko
guztioi*



Betiko
sukaldaritza
oinarritzat
hartuta,
baina
berrituta.



BATZOKI JATETXEA
Ego Gain, 1 - behea

Tfnoa. 943 25 72 80
www.baibatxokia.com



ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Gaztelupeko Hotsak

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dikarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

EI.- Zamariak xaxatzeko agindua. "Lotan be, ie! manduari, Elgeta errekadistiak".

IFAR.- Iparretik jhotzen duen haizea. Haizeak adierazteko ifar eta hegoi. Lekua adierazteko, berriz, ipar eta hego. "Ifar-haixia atara dau eta jantzizu jersixa".

IFAR-LAUSUAK.- Hodei mota. Erderazko 'cirro'. "Ifar-lausuak agiri dira Arrate aldetik".

ESKUTITZAK

EIBARKO UDALAK EZ DU IRRIEN LAGUNA IZAN NAHI

Urtero bezala ...eta kitto!-ren eskutik Eibarren abenduaren 10 eta 11n "Zazpikoloroa" ikuskizun berriaz gozatzeko aukera izango dugu Pirritx eta Porrotx, Marimotots, Marikalanbre eta bestelako lagunek aurkezturik. Zatozte!! Animatu!! Seguru denon txalo-zaparradak jaso ondoren oso pozik joango direla!! Baina, katxiporreta!! Eibarko Udalak ez du onartu "Irria aldizkaria" Irrien Lagunak klubaren harpidetza eskaintza.

3 eta 8 urte bitarteko gaztetxoek euren geletan euskaraz argitaratzen den aldizkari bakarra izan zezaten, Irriatik harpidetza egiteko eskaintza berezia jaso zuen Euskara eta Kultura Batzordeak, baina ez da onartua izan hauxe argudiatuz: alde batetik, Pirritx eta Porrotxek taularitzen dituzten lanak ez zaizkielako egokiak iruditzen eta, bestetik, ez dagoelako diru kopururik horretarako aurreikusita (guztira: 60 gela x 30€ gela bakoitzeko = 1.800€ko gastua).

Hartutako erabaki hori salatu nahi du Bilduk Eibarko ikasle gaztetxoek ezin izango dutelako, doan, aldizkariak dituen arlo ezberdinez gozatu, ezta pedagogikoki eskaintzen dituen aukerez ere.

BILDU

ESKERRIK ASKO ZALETU GUZTIEI

Escudería Eibarrek I. El Corte Inglés Rallysprint-a ahalbidetu duten laguntzaile, babesle, erakunde eta jarraitzaileen lana eskertu nahi du. Aldi berean, barkamena eskatu nahi du proba egiterakoan kalteturik izan bada; halakoak saihesteko ahalagin guztiak egin arren, ezaugarri horietako jardueretan beti ezusteak sortu daitezkeela jakitun. Aipamen berezia merezi dute gure proban parte hartu zuten talde guztieki, batez ere -matxura edo istripua tarteko- ibilbidean geratu zirenek; azken hauei lehenbailehen osatzea opa diegu eta baita etorkizunean Escudería Eibarrek antolatutako probetan berriro parte-hartzea ere.

ESCUDERIA EIBAR

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Datorren astean ez dugu astekaririk aterako.
Hurrengoa ABENDUAREN 16an izango duzue zuen buzoietan.

asteka HEMEROTEKA esaldiak

"Realaren elastikoan adabaki bat ipintzeagatik Markel Olanok aldundiaren kutxan beste zulozko bat egitea erabaki zuen. Diru laguntza hori barregarri bihurtzen du kontabilitate bikoitza eduki izana onartzea Realak, urteetan ogasunarekin zor erraldoia pilotuta. Zuk zeuk proba egin zenezake, pare bat urtez zure errenta aitortpena ordaindu gabe utzita: ordainetan ez duzu aldundiaren zigilua daraman Jabugoko urdaiazpikoa jasoko etxean. Halakoa da gurean bizi dugun Realpolitik-a"


(Daniel Agirre, kazetaria)

"Konturatu gabe, gehiago txalotzen dugu autoan dabilena: lotura positiboak egiten da, askatasunarekin lotzen delako. Autoaren erabileraren inguruan, baina, ez dago alde handirik gizonen eta emakumeen artean: baimenaren behar hori berdin sentitzen dute 18 urte betetzean eta gehiengoak orduan ateratzen du. Autoa sentitzeko orduan dago alde: rallyak, tuning-a, karting-ak... gizonen munduak dira; garraio publikoa, bestalde, emakumeek gehiago erabiltzen dute"

(Maddi García, antropologoa)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

TXIKI-PARKA UGAN-EN

Gaurtik hasitta eta apirilla bittartian Ugan gimnasiuan txiki-parka egongo da martxan, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren eskutik: bazkide diran dendetan gitxienez 20 euroko erosketia egittian emongo dittue bonuak (bakotzak ordubeterako balixoko dau). Zerbitzua barixakuetan (17.00etatik 20.30xetara) eta zapatuetan (11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.30xetara) eskinduko dabe eta 2-5 urte bittarteko umiendako pentsauta dago.

DIRU-LAGUNTZAK

Juan Antonio Mogel auzua goititik behera barrizatzeke diru-laguntzak emotia onartu dabe oiñ hurrengo plenuan eta, beraz, bertakuaq habitabilidadia, energixa-eraginkortasuna eta akzesibilidadia (hirurak alkarrekin, bakarka ez dau balixo) hobetzia nahi daben bizilagunak Eusko Jaurlaritzak emoten dittuan diru-laguntzak eskatzeko aukeria eukiko dabe.

1946-XAN JAIXOTAKUAK

Abenduaren 18xan alkartuko dira urte horretan jaixotakuak, 14.30xetan Iruki sagardotegixan alkarrekin bazkaltzeko. Aurretik, 12.00xetan mezia ospatuko da SanAndres elizan eta urtetzian erretratua etarako dabe. Juan nahi dabenak 65 euro sartu biharko dittu Kutxan, 2101 0035 13 0128064920 kontu zenbakixan.

Pako Garmendiaren hitzaldixak

JOSE MARIA SETIÉN-EK HASITAKO HITZALDI-ZIKLUAK JARRAIPENA IZAN-GO DAU ABENDUAREN 13-AN eta 20xan, Pako Garmendia irakasliak eskinduko dittuan berbaldixekin. "Ideologi-xak eta gizakixa" izenburu orokorra dakan zikluaren barruan, lehelengo egunian sozialismo

marxistaren proiektu ekonomi-politikuak ekarriko dittu gogora Garmendiak eta bigarrenian, barriz, esperientzia historikuak eta baloraziño kritikuak izango dira hitzaldixaren ardatzak. Hitzaldi bixak Portalean eskinduko dittu, bigarren pisuko areto nagusixan 19.30xetan hasitta.



Lab sexu-indarkerixia salatzen

AURREKO BARIXAKUAN, ANDRAZKUEN KONTRAKO INDARKERIXIA SALATZEKO EGUNAREKIN BAT eginda, LAB sindikatuak deittuta alkarretaratzia egin zan Untzagan "Sexu jazarpenari stop, ekin alternatibari" esaldixa idatzitta zekan pankartia zabaldua. Sindikatuko ordezkariak azaldutakuari jarraituta, bizitzaren esparru guztietan agertzen dan indarkerixiaren gaiñeko salaketia lan-eremurairio eruateko



ahalegiñetan biharrian dihardue aspaldidanik, bestiak beste, 2008xan ezagutzera emon

eben sexu jazarpenaren inguruko protokolua taillarretan ezartzen.



1937kuen bazkarixa umore onian

ERRETRATUAN IKUSTEN DITTU-ZUENAK EDARTO PASAU EBEN AURREKO ZAPATUAN, alkarrekin bazkaltzen. Urteroko ohitturiari eutsi eta gerra denporan jaixotako generaziño-kuak bat egiñ eben atzera be, jai giruan eta bapo bazkalduta aspaldiko kontuak gogoratzeke.

Bokaziñueri eskindutako testigantzak


AZITAINGO LA SALLE IKASTETXIAN, PASTORAL DEPARTAMENTUAK SUSTATUTA, BOKAZIÑO ASTIA OSPATU barri dabe eta, horren harira, gizarteko alor diferentietan, bestieri laguntzeko biharrian diharduen hainbat lagun testigantzak zuzenian jasotzeko aukeria euki dabe ikasliak. Danen artian lehelenguak batxillergoko ikasliak izan ziran, Andoaiñen irakaskuntza ez arautuko ikastetxe bateko arduraduna dan Luis Eskuderoren esperientziaren gaiñeko hitzaldixarekin. Beasaingo La Salleko Mikel Garcia anaixak 1. eta 2. DBHkueri aisialdixarekin lotutako ekimenekin baliabide gitxiko gaztieri laguntzeko aukerak azaldu zetsazen eta, programia agurtu aurretik, Donostia Ospitaleko mediku intensibista eta Zarautzen, Gurutze Gorrixan bolondresa dan Felix Zubiaren bizipenak jaso zittuen 3. eta 4. DBHko ikasliak.



Mekola eta Errekatxuren estudixua aldatu dabe

ASTELEHENEKO PLENUAN ONARTU EBEN MEKOLA ETA ERREKATXUKO TERRENUEN GAIÑEKO XEHETASUN-AZTERKETAN KANBIXUAK SARTZIA

eta, horren arabera, Mekolan parkia egingo da eta Errekatxun egin nahi daberen urbanizaziño barrixak Bidebarrieta kaliarekin lotzeko igogaillu publiko bi eukiko dittu. Meko-



Bista Eder, Errekatxu eta Sansaburuko etxe batzuk eraitsi ostian urbanizaziño barrixa egitteko asmua dake.

larako xehetasun-azterketiak jasotakuaren arabera, Arrate Biderekin lerrokatuta geratuko dan eraikiña jasotzia dago aurreikusitua. Eraikiñaren azpizan garajiak egingo ditue eta gehixen jota 17 etxebizitza hartuko dittu edifizio barrixak. Bildosolaren txalet parreko lurra, barriz, Udalak jabetzan hartuko dau eta bertan parkia egitteko asmua dake.

Errekatxu kaliaren hasieran (Bista Ederretik), barriz, Urtzailleraño doian errepide-raiño etxe barrixak jasotzeko asmua dake behiñ Errekatxuko 1, 3 eta 5, Bista Ederreko 21-23 eta Sansaburuko 1-3 pegorak eraitsi ostian. Holan, erdixan parkia eukiko



Sarreretako bat Bidebarrieta kaliarekin lotuta egongo da, San Agustin parian.

daben U formako urbanizaziñua egitteko asmua dake 136 etxebizitzarekin (horretatik 42 oin bertan bizi diranak atzera bezetzeko erabiliko ditue). Urbanizaziño barrixaren sarreretako batek Bidebarrieta kaliarekin lotuko dabe (San Agustin parian). Horrekin batera, etxien azpizan dendetarako lokalak egittia dago aurreikusitua.

EIBARKO PLAZIA

50€ko EROSKETA
EGINDA

1 OPARI LOTEA
DOHAINIK



OPARI LOTEA DOHAINIK

OPARI LOTEA DOHAINIK

asteko
1.300
datua

etxebizitzaren gaiñeko datuekin egingo dabe Eibarko errolda barrixa INE-kuak, populaziñuaren %12xarekin. 10 urtian behin barriztatzen ditue datuak eta martxorako amaizia espero dabe.

Oskar Arantzabal eibararra izango da hizlari.



Etxeko-biharretan diharduenen egoeria aztergai

ETXE-BARRUAN BIHARRIAN DIHARDUEN ANDRAZKUEN EGOTERIA EZAGUTZERA EMOTEKO AS-MUAKIN JARDUNALDIXAK antolatu ditte Udalak abenduaren 12 eta 14-ra, 19.00etan Portalean. Lehelengo egunian etxeko-biharretarako andrazkuak kontratatzen dituen famelixeri zuzendutako edukixak landuko ditue, bestiak beste famelixak bihargiñarekiko dituan bete-biharrekuak azaltzeko eta Lanbiden honen gaiñian eskintzen dituen zerbitzuak eta laguntasunak zeintzuk diran ezagutzera emoteko. Horretarako Lanbideko Jesus Maria Ordoñez eta Eibarko Lanbideko beste ordezkari batek jardungo dabe berbetan.



Eta abenduaren 14kuan, barriz, arlo honetan biharrin dihardueneri euren eskubidiak eta bete-biharrekuak esplikatzeko jardungo dabe CC.OO, UGT eta LAB sindikatuetako ordezkariak.

Hitzaldi-ziklua antolatu dabe Einabar taldekuak

EINABAR EIBARKO NABARRALDEZALEAK TALDEKUKAK, "EIBARREN, INDEPENDENTZIAZ" IZENBURUKO ZIKLUA antolatu dabe abendurako. Hilarren 14an "Izena eta izana" izenburuari jarraituko detsan mahai-inguru irekixa egingo da, Angel Rekalde, Koldo Martinez Garate eta Beñi Agirrekin. Mahai-inguruan estadu propi-

xua definitzen ahaleginduko dira (Euskadi, Euskal Herrixa, Nafarrua, Vasconia...). Eta hilarren 21ian, "Independentzia ekonomikuaz" hitzaldi-aurkezpena eskinduko dau Oskar Arantzabalek. Bere berbaldixan landuko dituan kontzeptuetako batzuk estadu txikixen paradigma ekonomiko barrixa munduan, krisixaren eragiña eta bideragarri izatetik burujabe izateraiñoko urrats praktikuak izango dira. Ekitaldi bixak 19.30xetan izango dira, Arrate



Kultur Elkartean. Bestalde, bertan ipiñiko daben mahaitxobatian Durangoko argitalpen barrixak salgai egongo dira.

EGOITZA NAGUSIA
Bilbarrizta 20 - behea, eskume

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Emusketa labeg

Egaitzen (ligna pargituan)

Partikular, nekari eta abigari enosi zerbitzuak

Koiook - Eskala - Urtumanoa eskala

Euskal Herri eskala ospitaleen hartzan zerbitzu

Nazio eta Nazioarteko hartzalduak

Mugica Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

33.151
...eta kitto!-ko
GABONETAKO LOTERIA

Loteria hartzaileen artean, abenduaren 14an GABON-OTARRA zozketatuko da

SALGAI DUZU:

- Udal Euskaltegia
- AEK Euskaltegia
- Isasi okindegia
- Zabaléta okindegia
- Untzaga prentsa
- Urkizu prentsa
- Kultu taberna
- Mujika harategia
- Valenciaga jantzidenda
- Izadi loradenda
- Zubi-Gain kafetegia
- San Andres gozotegia
- Dibutec fotokopiadenda
- Bolintxo okindegia
- Bankoa

...eta kitto!


Goizeko 12.00xak dira eta eguzkixa da nagusi. Abendua bada be temperatura edarra egitten dau eta Urkizuko parkian inguruan jende asko dabill, pertsona nagusixak batez be. Horietariko asko umiak zaintzen dabiz, baktxa beraren loibiakin.

Aittitta edo amama zeregiñetan jardutia: poza ala arduria?



INDALECIO IGLESIAS
66 urte
jubilaua

Alde batetik, arduria da. Baiña bestetik, asko gozatzen dozu loibak zaintzen. Batzutan lan asko emoten detsue, baiña ondo erua-ten dot nik. Loiba bakarria baiño gehixago dakat eta eurak zain-zen lagundu bihar dotela pentsa-zen dot, gurasuek lan egitten da-belako.




PEIO BENGOETXEA
70 urte
jubilaua

Neretako pozgarrixa da loibak zaintzia. Neriak ez dagoz hemen oin momentuan, baiña gustora zainduko nittuan bestela. Oso umezalia naiz eta asko gustatzen jata umiekin egotia. Oin be lagun baten umiak ikusi dittut eta segi-duan juan naiz eurengana.


CARMEN LEZETA
77 urte
etxeakoandria

Inguruan dakaten aittitta eta amamak oso gustora ikusten dittut euren loibak zaintzen, poz-pozik. Nik ez dakat loibarik, baiña bes-tela gustora zainduko nittuan, arazo barik, ez zan ardura haun-dixa izango neretako.



MELCHORA FERNÁNDEZ
63 urte
etxeakoandria

Ez naiz amama, baiña gustatuko jatan izatia eta loibak zaintzia. Gurasuen arduria izan biharko zan umiak zaintzia, baiña lantzian behin lagundu bihar bada, ondo ikusten dot aittitta-amamek la-guntzia, abusatu barik. Batzuk, gainera, euren umiekin gozatu ez ebena gozatzen dabe loibekin.



PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa Arrasate

ABENDUAK 17 laruntza, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

Oñati **ABENDUAK 15** osteguna, 18:00

Irui **ABENDUAK 17** laruntza, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea Donostia

ABENDUAK 17 laruntza, 10:30

Euskarazko hedabideek erakundeen konpromisoa behar dute

Bederatzi hilabete badira euskarazko hedabide ez publikoak agerraldi publikoa eta kanpaina bateratua egin genituela, hiru helburu nagusirekin:

1. Sektorearen estrategikotasuna eta beharra azpimarratzea. Komunikazioaren eta hizkuntz normalizazioaren ikuspegitik ez ezik, ekonomia ikuspegitik ere estrategikoa eta garrantzia handikoa den sektore bati buruz ari gara hitz egiten.
2. Erakunde publikoei sektorearekiko konpromiso handiagoa eskatzen zitzaien, publizitate-inbertsio, bestelako inbertsio eta laguntza handiagoak, gaurtik bertatik hasita.
3. Horretaz gain, sektoreak egoeraren analisia egin eta analisi horretatik abiatutaildo nagusiak erakundeekin lantzen hastea konpromisoa hartu zuen.

2012. urtea ate-joka dugu, eta erakundeetatik sektoreari begira jasotzen ari garen mezuak kezagarriak dira, ikaratzeko modukoak.

1. 2012rako aurrekontu proposamenean jasota daudenak betetzen badira, Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideentzako zituen diru laguntzak ezerezean dira, 2012ko aurrekontuetatik erabat desagertuko da hedabideetan euskara sustatzeko diru partida. Gainera, 2011ko bigarren epealdiko laguntzak desagertzeko arriskua ere handia da.
2. Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako aurrekontuak onartzen badira, erakunde horrek aurtan baino 400.000 euro gutxiago



bideratuko ditu 2012an hedabideen diru laguntzetara. Urteetan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorrak goraka joan direnean, euskalgintzara eta euskarazko hedabideetara bideratutako diru sailak ez dira handitu; orain, aurrekontuetan estatusunak sortu direnean, ez dago gupidarik: lehendik estu dabilen sektore bati are kalte handiagoa egiteko aukera zabalduko da.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011ko diru sailari eustea aurreikusi du —aurreko bi urteetan asko jaitsi da diru sail hori, eta ez du handituko—. Bizkaiko Foru Aldundia da 2012rako bere aurrekontuetan diru saila handitzea aurreikusi duen bakarra - 47.500 euro gehiago, %12ko igoera-.
4. Eta zer esanik ez Iparralderi buruz, non euskaldun hiztunen galera bizkorra (hizkuntza politika publiko baztertzailaren ondorioz) anbizioz gabeko hizkuntza politika batekin paraleloan doan. Enpresa pribatuek euskarazko hedabide berriak sortzen dituzten bitartean, laguntza publikoak oraindik geldialdi berean mantentzen dira eta, aldi berean, botere publiko gehienek ez dituzte kontuan har-

tzen euskarazko hedabideak beren publizitate kanpaina ordainduetan.

Jakitun gara sektorearen etorkizuna gure lanaren baitan dagoela nagusiki. Guk geuk ere aztertu behar ditugula gure indargune eta ahuldadeak, sektorean elkarrekin jardunda errazagoa izango zaigula garai zail honi aurre egitea. Zeregin horretan ari gara hilabete hauetan eta laster batean gure hausnarketa instituzioetako arduradunekin partekatu ahal izango dugu. Baina argi dugu aurrera egiteko ezinbestekoa dugula erakunde publikoen laguntza handiagoa, eta hori ari gara aldarrikatzen une honetan. Gaur egungo erakunde publikoen dinamikak ez du asko laguntzen bide horretan, eta ezin dugu isilik geratu ikusten dugunean euskarazko hedabideen sektoreak ez duela erakunde publikoen 2012ko aurrekontu proposamenean behar eta merezi duen trataera jasoko, ustez denen begietara sektore ezinbesteko eta estrategikoa izan arren. Horregatik, erakunde publikoki eskatzen diegu gaiaren garrantzia kontuan hartzeko eta aurrekontuak ahalik eta gehien egokitzeko, partidak handituz.

EUSKARAZKO HEDABIDE EZ PUBLIKOAK



Lan Aseguru Artekaritza

Autoa, Etxebizitza, Istripu eta Bizitza aseguru...
...ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

Estaziño, 12 - behea Tel. 943-257545 Fax. 943-257546



• tartak
• enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Urtebete pasa da **MUJERES AL CUADRADO** elkarte martxan jarri zenetik. Bidea, hala ere, ez da erraza izan eta urte bi behar izan zituzten hiru emakume eibartarrek elkarte sortzeko. Orain, Andretxean bere lekua dauka elkarteak eta tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek bertan aurki dezakete laguntza.

“Zailena tratu txarrak jasaten jarraitzea da, ez horiek salatzea”

Gaur egun 25 bat emakumek osatzen dute Mujeres Al Cuadrado. “Hilero behin elkartzen gara eta askotan gutxi batzuk besterik ez gara batzen”, aipatzen digu elkarteko kide batek. Tratu txarren aurkako protokoloaren barruan aurkitzen da elkarte eta bertako kide izateko ez da beharrezkoa tratu txarrak jasaten dituzula salatzea. “Berdintasun Zinegotzigoan edo Andretxean elkarrizketa egin eta filtroa pasatzen dutenak jasotzen ditugu. Gurekin kontaktuan jartzen dira, gure artean hartzen ditugu eta ahal den heinean gure laguntza eskaintzen diegu”.

Urtero emakumeen aurkako tratu txarren 30 bat salaketa egiten dira Mujeres Al Cuadradoek diotenaren arabera, “baina askok ez dute nahi izaten horri lotuta jarraitzea, berehala moztu eta ahaztu nahi dute pasatakoa”. Baina ez da erraza izaten eta gizartea emakumeen aurkako tratu txarren gainean ez dagoela kontzientziatuta diote elkartekoek. “Bigarren mailako biktimak ga-

ra; adibidez, ez gaituzte biktimatzat hartzen urrutze-ordena eduki arte”.

Arazo onartu eta hedatua

Gazteen artean dauden kasuak azpimarratzen ditu elkarteak. “Egoera latza da gazteen artean eta ikasgeletara gure kasuak eraman nahi ditugu eurak arazoa nolako den jabetu daitezen. Hala ere, Eusko Jaurlaritza aurreratu egin zaigu hortan”. Baina elkartearen iritziz kontzientzia falta handia dago eta arazoa gizartean onartuta dago. “Telebistako saioetan, marrazki bizidunetan, zinean... ikusten da hori. Gizarte matxista batean bizi gara, eta guztiz onartua eta hedatua dago hori”.



Mireia Arginoniz eta Begoña Vesgag Debabarreneko Alternatibako andrazkoen izenean “Mujeres colonizadas” izenburuko kanpaina aurkeztu zuten.



Eibarko Emakumeen Mahaia eta Udalak deituta elkarretaraztea egin zen 25ean. / EKHI BELAR

Mujeres Al Cuadrado elkarteak aipatzen du askotan emakumeak ez direla konturatzen tratu txarren biktimak direla. “Tratu txar psikologikoa dagoenean zaila da konturatzea”. Bestetik, tratu txarren artean 3 pausoko zikloa ematen dela diote: “tentsioa, leherketa eta ‘eztei-bidaia”.

Horrela, tratu txarrak jasanez ostean, ‘eztei-bidaia’ delakoarekin emakumea berriz gizonaren besoetan erortzen da, “zuk guztiz maiteminduta jarraitzen duzulako”. Birgirzateratzen diren gizonen konpurua, hala ere, oso baxua da.

Elkarren artean laguntza

Elkartean “hizkuntza bera” erabiltzen duten emakumeak

batzen dira kideen arabera. “Bakoitzak bere istorioa konta dezake eta esperientzia horiek lagungarriak izan daitezke beste emakumeentzat”. Gainera, ez dago estatuan emakumeen aurkako tratu txarren biktimen elkarte asko, “beldur handia dago emakumeen artean eta moduren batean babestu egin behar gara”.

Poliki-poliki elkarte gorpuzta hartzen eta laguntza gehiago eskaintzen ari da. Horrela, formakuntza zerbitzua eskaintzeko asmoa dauka. “Psikologo bat ekarri nahi dugu elkarteko kideekin autoestima, talde-kohesioa, elkarteari beldurra galtzea... lantzeko”.

Mujeres Al Cuadrado elkarteok argi daukate tratu txarrak jasate horretatik irten eta aurrera egin daitekeela. “Zailena tratu txarrak izaten jarraitzea da, ez horiek salatzea”. Horrela, euren kontaktuan jartzeko hainbat bide eskaintzen dituzte: 943700828 eta 677451359 telefonoak, m2eibar@hotmail.com helbidea eta Facebookeko Mujeres Al Cuadrado profila.

LUCIO NARBAIZA GAZTELU (2011-XI-3)

**BERE ALDEKO MEZA OSPATUKO DA EGUENEAN
(ABENDUAK 8), EGUERDIKO 12.30ETAN,
ARRATEKO SANTUTEGIAN.**

ARRATEKO AMAREN KOFRADIAKO BATZORDEA



Azken hamarkadan alde batera lagatako auzuetako billerak berreskuratu ditu Udalak korporaziño barrixarekin. Sasoi batian Amañako zinian eta Urkiko lokal parrokialian egitten ziran hárek billerak bueltatu dira gurera eta, oiñ arte, sei egin dira honezkero. Azkena izango dan zazpigarrena "abenduaren 14an egingo" dala seguruenik esan deskue udal ordezkariak.



azaroko 20 arte Udalian jasotako kejak

KEJEN ZERBITZUAREN DATUAK

Kaleko objektuak	249	%20'4
Argixak	163	%13'4
Kale mobiliariak	133	%10'9
Loratexiak	107	%8'8
Señalizaziñua	95	%7'8
Kale garbitasuna	91	%7'5
Urak	47	%3'8
Animaliak	44	%3'6
Udal biharrak	23	%1'9
Trafikua	14	%1'1
Segurtasuna	8	&0'6
Garraia	8	%0'6
Lan partikularrak	5	0'4
Kalia okupatzia	5	0'4
Udal zerbitzuak	4	0'3
Lokalak	4	0'3
Ingurugirua	2	0'1
Beste batzuk	64	%5'2
Hortik kanpo	150	%12'3
Guztira	1.216	

AUZOKA

Erdialdia	%26'9
Ipurua/Urki/San Kristobal	%21'6
Jardiñeta/Matsarixa	%18'4
Amaña/Legarre	%18'1
Industriaguniak	%1'2
Basarriguniak	%0'9
Beste batzuk	%12'6

Udalak auzo-billerak berreskuratu ditu: azkena hillaren 14an egingo da


S etienbreko 28xan egin zan lehelen-go billeria, Amañan. 40 eskaera inguru egin ziran bertan, 120 bat bizilagunen presentziarekin. Ardura nagusixenak akzesu mekanikuen eta mugikortasunaren inguruak izan ziran. Urriaren hasierian Legarre, Mekola, Miraflores eta Arrate Bideko biztanleekin egindako billeran 70 lagun izan ziran eta Bildosolaren txaletaren inguruan jardun eben, beste gauza batzuren artian. Urkin egin zan billerian, bestalde, Ubixako lokal batzuk izan ziran protagonista, auzotar batzuen kejan artian, eta Udaleko ordezkariak neurriak hartuko zebela esan zeben, "egoeria legalizatze-ko bidian"; horko beste erreklamaziño batzuk etxebizitzan, kirol ekipamenduen eta akzesuen inguruak izan ziran. Ipuuako billerian Agustinan konbentua izan zan gai zentraletakua eta jendiak zezen-plazari eta kuartelari buruz galdetu eban. Beheko Toki-

xan egin zan hurrengo billeria azaro erdialdian, Barrena, Urkizu eta Txontako jendiarekin. Jarraixan, seigarren billeran, eztabaida gehixen sortu dittuen Errebaleko eta Matsarixako proiektuak jarri zittuan pil-pilian, jendiaren partizipaziño sutsuarekin. Auzokuak arduratuta dagoz Errebaleko proiektuak izango daben billakariarekin, Coliseoan egindako billerian ikusi zanez. Horko epiak-eta galdetuta, udal ordezkariak be ez ziran ausartu epe zihetzak emoten, "azken aldixan ez dogulako asmatu".

Billeretan, De los Toyos alkatia, Benítez eta Escribano ziñegotzixak, Calle udaltzaiñen burua eta Obretako eta Zerbitzuetako teknikariak izan dira. Billerekin batera, udal batzordiak herriko zazpi zonalde bisitatu ditu: Amaña eta Legarretik aparte, Ipu-ruan, Urkin, Jardiñeta/Estaziño/Matsarixan, Urkizun eta behealdian eta, azkenik, erdi-koaldian izan dira.

Berriro Eibarren, euren azken lanarekin

PURRITX, PORROTX & MARI MOTOTS



ZAZPIKOLORUA

Abenduaren 10ean:

16.30 / 19.00

Abenduaren 11n:

16.00 / 18.30

Lau saio: 4

26tik aurrera sarrerak salgai (7'00 euro)

E&M ARGAZKIDENDA, EL TÍO PALANCAS ETA GOZOKI-N

Kalerik kale: bizilagunen kopurua

Badira bi urte baiño gehixago hasi giñala astekarixan, Auzorik-Auzo sekziñuaren barruan, herriko kalien ezaugarriak sartzen. Oin dala aste bi amaittu genduan eta hamen dozuez herriko kale bakotxian bizi dan jendien kopurua eta eurretan dagoazen pegorena be. Guz-

tira 112 kale dagoz (tartian, bost basarri auzo, azken hauetan pegorak izan biharrian basarri kopuruarekin). Lerro hōnek aprobetxatuta, eskerrak emon gura detsagu Udal Estadistika sailleko bihariñeri lan honetan eskindutako laguntasunagaittik.

KALIAK	Pegorak	Biztanleak	KALIAK	Pegorak	Biztanleak	KALIAK	Pegorak	Biztanleak
Abontza Bide.....	4	22	Errekatzu	18	430	Muzategi	5	137
Aldatze	9	125	Estaziño	16	284	Otaola Hiribidea	29	53
Amaña kalea.....	25	300	Eulogio Garate	2	58	Pagaegi	4	142
Apalategi.....	7	11	Fermin Calbetón	20	488	Paziano Arosa	22	501
Arane	11	327	Fray Martin Mallea	3	79	Polonia Etxeberria	22	838
Ardantza	9	245	Gisastu Bide.....	1	69	Romualdo Galdos	20	1.016
Argatxa Jardinak.....	2	0	Ibarbia Zeharra.....	0	0	San Agustin.....	5	95
Arikitzaneko zubia	1	22	Ibargain.....	31	2	San Andres pasealekua	7	150
Armagin	3	194	Ibarkurutze	9	109	San Juan	10	306
Arragueta.....	21	386	Ibur Erreka.....	0	0	Sansaburu	7	160
Arragueta Zeharra.....	2	10	Ifar Kale.....	5	114	Santaiñes.....	16	337
Arrate Bidea	19	281	Indalezio Ojanguren	2	298	Saratsuegi	7	273
Artegietza	6	143	Iparragirre	6	110	Sostoatarren.....	17	400
Asola-Igartza	7	89	Ipurua	3	33	Tiburtzio Anitua.....	34	1.645
Asua Erreka	2	83	Isasi	27	561	Toribio Etxebarria	23	572
Azitain Bide	6	27	Jardiñeta	34	971	Torrekueta.....	3	0
Barakaldo	20	557	Jazinto Olabe	6	170	Txaltxa Zelai	15	533
Barrena	29	1.384	Jose Antonio Gisasola	2	58	Txirixo kale	5	43
Barrenengua.....	0	0	Jose Antonio Iturriotz.....	2	63	Txonta	46	745
Barria Plaza	4	86	Juan Antonio Mogel	21	418	Ubitxa	23	568
Bidebarrieta	47	955	Juan Gisasola	12	458	Untzaga Plaza.....	10	143
Birjiñape	1	26	Julian Etxeberria.....	18	552	Urki	26	981
Bista Eder	19	447	Karlos Elgezua	11	313	Urki Kurutzekua	6	175
Bittor Sarasketa	11	166	Karmen	9	446	Urkizu pasealekua	27	1.153
Blas Etxebarria.....	3	90	Legarre.....	10	414	Urtzaille	6	102
Bolingua	4	25	Legarre-Gain	17	470	Wenzeslao Orbea	6	497
Bustinduitarren	14	299	Makazkua	1	5	Zezenbide	9	154
Egigurentarren	12	405	Matsaria	5	42	Ziriako Agirre.....	11	210
Ego-Gain	11	157	Mekola	8	114	Zuloagatarren.....	6	121
Eguzki-Begi	2	42	Merkatu kalea	0	0	AGINAGA AUZOA	27	48
Eibarko Bizikleta Plaza.....	0	0	Miguel Aginaga	4	176	ARRATE AUZOA.....	38	97
Eibarko Txikito	4	177	Milaflores	13	3	GOROSTA AUZOA	36	76
Elgeta kalea	1	39	Murrategi	3	63	MANDIOLA AUZOA	36	96
Errebal	21	454	Mutiola	5	234	OTAOLA-KIÑARRAGA.....	35	76

ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Lomo iberikoaren carpaccio-a
Etxeko foie-a
Txipiroi eta tipulin nahaskia

Legatza labean edo
Bakailoa Club Ranero erara

Solomilloa plantxan edo
Ahate confit-a

Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Txokolate mousse-a Armagnac erara

Etxeko Errioxako krintzan ardoa,
sagardoa edo beste

Asteleheneretik
barixakura
EGUNEKO
MENUA

15 €

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ

info@gerritek.net



Txaltxa-Zelai, 4-6

Tel: 943-033892 / Faxe: 943-031521


TEEN-
AJEA



Irudi berria dauka Indianokua eta Eider Maiztegi da horren sortzailea. Koloretsu eta eztanda baten moduan, Eiderrek sortutako irudia izango da Indianokua Gaztelekuak edukiko duen irudia. 13 urteko neskak pozez hartu du berria.

EIDER MAIZTEGI, logotipoaren sortzailea:

“Klasekoek lehiaketa irabaziko nuela esan zidaten”



- Nola inspiratu zinen horrelako logotipoa diseinatzeko?

Logotipoa egitearen ideia gure andereñoak izan zuen. Gaztelekuan logotipo lehiaketa zegoela esan zigun eta informatika orduetan jardun genuen hura diseinatzeko. Horrela, bere laguntza izan genuen prozesu osoan.

- Suzko erroberen antza dauka logotipoak kolore guzti horiekin. Zerbait islatu nahi zenuen?

Ez, beste barik, horrela irten zitzaidan eta kitto.

- Lehen aldia da horrelako lehiaketaren bat irabazten duzun lehen aldia da?

Bai.

- Eta espero zenuen saria irabaztea?

Ez nuen espero, baina klasean lana diseinatu nuenean klasekideek esan zidaten nik irabaziko nuela. Ba tira, horrela izan da azkenean.

- Informatika klaseetan egin zenuela esan duzu. Dena ordenagailuz dago eginda, beraz?

Bai, Picnic eta Picasa programak erabili nituen horretarako. Gero, bertan agertzen den irudia internetetik hartu nuen.

- Zer esanahi du zuretzat Indianokua Gaztelekuko logotipoa zuk diseinatua izateak?

Pozgarria da, polita da Gaztelekuko logotipoa nik egindakoa izatea.

- Gaztelekura joateko ohitura daukazu?

Bai, batzuetan joaten naiz lagunekin, hotza dagoenean batik bat.

- Negua heltzear da, beraz, hemendik aurrera gehiago joango zara. Zer da bertan egiten duzuen?

Bertan eroso jartzen gara eta musika entzuten pasatzen dugu denbora. Pelikulak ere ikusten ditugu lantzean behin.

Ketesak 2010 *Artelego eta kolektibitatearen instalazio osorik eta materialak*

arteak, eskulak, marrazkiak, filmak, irudiak...

bulego materiala enpreetan banatzen dugu

Enpresen kalea, 12
28009 Zorua
95 44111111 / 954411112
Fax: 954411111
www.ketesak2010.com

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelera,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

'Mississippi' da Markos Untzetaren azken diskoaren titulua. Bluesa, gospela, countrya eta soula bezalako estiloak landuz, AEBtako ibaiak egiten duen ibilbidea jarraitzen du eibartarrak. Hilaren 16an, barixakua, Coliseoan aurkeztuko du lana 20.30etan bere herrikideen aurrean (3 euro).

MARKOS UNTZETA, musikaria:

"Mugak zirenak abantail ikasi dut bihurtzen"

- Ingalaterran igo zinen lehen aldiz taula gainera. Nola gogoratzen duzu?

Ingalaterran nengoela pub batera joan eta eszenatokia ikusi nuen. Ez dakit zergatik pentsatu nuen egunen batean bertan arituko nintzela eta horrela izan zen. Behin kontzertu bat ikusten nengoen eta taldea asko gustatu zitzaidan. Eurekin berbetan hasi nintzen eta neure harridurarako taldeko kide biak espainiarrak ziren jatorriz. Orduan, erlazioa hasi nuen eurekin, lagunak egin eta eurekin eszenatokian Van Morrisonen bertsio bat egiteko aukera eskaini zidaten. Hurrengo urratsa izan zen euren kontzertuen aurretik ni gitarraekin eszenatokira igozteko bertsioak egitera.

- Azken diskoan gospela, bluesa, soula, countrya... jorratzen dituzu. Toki okerrean jaio zinen?

Denbora luze batean hori pentsatu izan dut, baina denborekin konturatu naiz kontua ez dela non jaio zaren, beste gauza batzuk daudelako inguruan. Musika entzun, pelikulak ikusi edo liburuak irakurtzen dituzunean, kontua artistikoa denean, geografiak ez dauka ardurarik. Zure baliabide edo bitartekoak (hau da, musika, literatura...) trebatzen dituzunean, zu zauden tokian gustuko dituzun doinuak, espazioak edota estetikak islatzen dituzu. Orduan, ez da

geografia kontu bat, kantuekin New Orleansko taberna batera joan baizaitezke.

- Amerikako Estatu Batuetako 7 estatu zeharkatzen ditu Mississippiak. Zenbat musika-estilo zeharkatzen ditu diskoak?

Izenburua eta, azken finean, diskoa ibilbide musikala dira. Modu bitxian hasi zen dena. 'Zubiak eta ibaiak' kantuan dagoen riffa sortu nuen eta mp3an gordetzean zein zen gogoratze-ko Mississippi berba jarri nion, zerbaitengatik riff horrek Missisippiren deltako soinuak ekartzen zizkidalako gogora. Orduan, banekin hor zerbait potentea neukala, eta beste kantu baten melodiak jotzen negoela riff horren ideia oraindik gogoan neukan, Missisippiren ideia. Roger Johnsonen kantua etorri zitzaizkidan burura eta kantu bi



horiek diskoa nondik heldu ahal nuen ideia eman zidaten. Rock musikak dituen iturrietatik hasita, ibilbide musikala hasi eta New Orleans, Nashville, Memphis... zeharkatzen ditut. Ez nekien AEBko 7 estatu zeharkatzen zituenik ibaiak, baina egia da behin datuak nituenean toki bakoitzarekin bat zetozen musikak egiteko ideia garatu nuela teknikariarekin.

- 1. diskoa 2002an kaleratu zenuen, 2.a 2006an eta 3.a 2011n. Lasai hartzen duzu diskoen sortze-prozesua?

Gustuko dudana musika da hasi batekoa, non albumak sendotasuna izan behar zuen. Ez naiz ideia kontzeptual bati buruz ari, nahi dut esan 10-12 kantuko bilduma batek bere osotasunean izan behar duela indarra, ez du balio 3-4 kantu sortu eta gero ingurua betetzea. Alde batetik, beti izan dut gogoia 10 kanta batus gero dena sendoak izateko eta horrek denbora behar du. Beste alde batetik, nire baldintzetan diskoak egitea nekeza da arlo guztietan: arlo ekonomikoan; adinaren arloan, musikariek eta nik haurrak baitauzkagu, eta ideia musikalak garatzeko ez da erraza batzea; eta industria musikala dagoen moduan, pentsa-

ezina da diskografika batek zuki nahi duzuna egiteko baliabideak ipintzea. Orduan, dena batu egiten da. Gainera, pazientziaren kontua nahiko garatuta daukat eta muga horiek abantail bihurtzen ikasi dut.

Konturatu naiz estudioko lanean belarri freskoak edukitzea eta erabaki zuzenak hartzeko perspektibarekin entzutea oso garrantzitsua dela. Izan ere, diskoa egiteko hilabete badaukazu, belarriak frijitu egiten dituzu, perspektiba guztiak galtzen dituzu eta 11. nahasketan ez dakizu nondik heldu ere. Orduan, astebetetz proiektua guztiz laga, atsedena hartu eta geroago hastea, abantaila da.

- Missisippitik urrun, Ego ibaiaren hertzean arituko zara abenduaren 16an. Nola sentitzen zara zitaren aurrean?

Ego ibaia ikusi dudana aldi bakanetan gogoratzen dut (Eibarraren Azitain inguruan ikusten nuelako bakarrik) benetan erreka zikina zela, kolore eta egituraren anitza eta aberatsa. Orain garbiagoa dagoela pentsatzen dut. Missisippiko doinu eta estetikekin gure Ego txikia aberasten saiatuko naiz.

Elkarrizketa osoa: www.etakitto.com

...eta Euskara E Gabon KATAI

SOKADUN
ESKUMUTURREKOA:
11,80 euro



KATEA:
9,45 euro



EH ZINKILIKARIOA:
22,60 euro

LAUBURU
ZINKILIKARIOA:
15,80 euro



NAGUSIENDAKO
KAMISETAK (S-M-L-XL-XXL):
25 euro



UMEENDAKO
KAMISETAK (4 URTETIK 12RA):
20 euro




BABEROA:
15 euro

ZIBA:
7 euro




AMANTALA (LAUKIAK):
T: 1, 2, 3, 4
34 euro




ABANIKOA:
5 euro

JOKOA:
9 euro



PELLO ZABALA HIGROMETROA:
33,50 euro



KATILU TXIKIA:
7 euro

ARGAZKI MARKO ERTAINA:
14 euro

ARGAZKI MARKO HANDIA:
16,50 euro



KITTO-AMANTALA:
10 euro





KITTO-AMANTALA:
15 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Euskara E
ASTELEHENETIK BARIKAKURA, 10.00etatik 13.00etara / 1

IKUSI, AUKERATU eta EGIN

kitto! Elkartearen Metako KATALOGOA

DISKA ETA DVDAK







*Katalogoak dituen irabaziak
euskeraz sustatzen
erabiliko ditugu*

TIRAGOMA:
3 euro



MAHAI-GAINEKOA:
11,60 euro

ARBOLARAKO
OLENTZERO:
3,50 euro



GILTZATAKOA:
10,60 euro



eta
kitto!
Euskara Elkarte

KARRIKIRI
EUSKARA ELKARTEAREN KARRIKIRI

ATERAKO ALFONBRA: 12 euro

Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)
16.30etatik 19.30etara

ENKARGUA!



Eibar Eskubaloia marka guztiak hautsiz

ORAIN SORTU BERRI ESKUBALOI KLUBAREN TALDE NAGUSIAK MARKA GUZTIAK HAUSTEKO BIDEAN jarraitzen du, partidu guztietan 40 goletik gora sartuz. Azken jardunaldian 13-44 nagusitu ziren Imanol Alvarezek entrenatzen dituen mutilak Arrasaten, Gipuzkoako 2. mailako lurralde txapelketa ligako partiduan. Orain arte jokaturako zazpi jardunaldietan, eibartarrek 308 gol lortu dituzte eta 104 bakarrik hartu. Hurrengo jardunal-

dian Amenabar B hartuko dute Ipuruan: sailkapeneko bi lehenen arteko lehia izango da, Zarautzekoak partidu bakarra berdindu eta beste guztiak irabazi baitituzte.

“Hazi gurekin”

Izen horrekin hasi zuen Eibar Eskubaloiak astelehenean bazkideak erakartzeko kanpaina; berau hilaren 17an amaituko da, Untzagan egingo den jai handiarekin (bertan taldeen argazki ofizialak egingo dira eta




Imanol Alvarezek zuzentzen duen talde nagusia erratzasun osoz nagusitu da partidu guztietan.

euren arteko partiduak jokatu-ko dira). Untzagako Jubilatuek Etxean mahaia jarriko da eguen eta barixakuetan (19.00-etatik 21.00etara) eta baita seniorren taldeak Ipuruan jokatu-

ko dituen partiduetan ere. 16/17ko astebururako ekitaldiak antolatzeke, klubeko jokalarien gurasoen bilera egingo da astelehenean, hilaren 5ean, Portalean 19.30etan.

Irungo Batallako xakelariak nagusi López Memorialean

HAMABOST TALDEETAKO 65 XAKELARI BILDU ZITUEN MANUEL LÓPEZEN OMENEZKO XAKE TXAPELKETAREN 1. EDIZIOAK udaletxeko patioan eta, suitzar sistemari jarraituz jokaturako sei txanden ondoren, Irungo Batalla taldeko jokelariak izan ziren onenak match guztietan gailenduz. Klub Deportiboak talde bi aurkeztu zituen: lehenengo taldea 4. postuan sailkatu zen eta bigarrena azkena izan zen, 15. tokian. Juan Manuel Salinero (Bilboko Zuri-Baltza) izan zen txapelketako jokelari onena eta Fis-



cherren Ausazko sistema erabiltzea oso berezia izan zen xakelari askorentzat.




San Andres waterpolo torneooa jokatu da domekan

NAÚTICA-MARISTAS KLUBAREN INFANTIL ETA KADETE MAILAKO TALDEEK JOKATUKO DUTE, Urbatekoekin lehia, San Andres trofeoa etzi, 14.30etatik aurrera Orbea kiroldegian. Aurreko asteburuan, bestalde, eibartarren lehen taldeak 21-3 egurtu zuen baja askorekin etorri zen Waterpolo Donosti: Rusbelt boia-entrenatzaile kubatarra izan zen donostiarren erreferentzia bakarra, baina eskas Urbat-ekoen aurrean. Eta Alex Sarasua, Mikel Sánchez eta Unai Etxaburu gazteek Euskadiko selekzioarekin entrenatu zuten.

Herri-kirolik gabeko Sanandresak

AIZKOLARIEN SAN ANDRES TORNEOA HAMARKADA BETE BARRIK GERATU DA. Aurten zen jokatzekoa X. edizio hori, baina krisiaren esku luzea horraino ere heldu da eta Udalak programaziotik kentzea erabaki du. Azken urteotan antolatze lanetan jardun duten Euskal Jokak-ekoek Ermuan San Martin jaietan egindako erakustaldiarekin konformatu behar izan dute. Kortina eta Bihurri protagonista izan dira azken aldian, baina gure artean baino gehiago NHK Japoniako kate publikoak gure artean grabaturiko irudietan.



Concepto Egilek berdinketa baino gehiago merezi izan zuten

ELGOIBARTARREK BINA BERDINDU ZUTEN TOLOSAN LASKORAI-NEKIN GIPUZKOARREN ARTEKO DERBIAN; hori bai, askoz gehiago merezi izan zuten, neurrak goitik behera kontrolatu eta gero. Debabarrena Fútbol Salako talde nagusienak bikain jokatu zuen eta nagusitasuna erakutsi zuen partidu osoan, Richardek lortutako bi golekin bakarrik konformatu behar izan bazen ere.



Ruibalek Katu Kale menderatu zuten

LEHEN LAURDENEAN LORTUTAKO ABANTAILARI EUTSIZ (16-7), RUIBAL ALQUILER DE VEHÍCULOSEK GARAI PENERRAZA eskuratu zuten Katu Kaleren aurkako eibartarren arteko derbian. Galtzaileek defentsa zorroztu zuten 2. laurdenetik aurrera eta neurketa moteldu, baina hala ere ez zuten lortu markagailuan gerturatzea. Mikel Arnaiz (15 puntu) izan zen saskiratzaille onena Ruibalen eta Alarcón (12) Katun. Mondragón Unibertsitatearen aurka jokatu du Ruibal sailkapeneko liderrak hurrengo neurketa Arrasaten; Katu Kalek atseden hartuko du.



Saskibaloiko herriko talde biak euren arteko neurketa amaitu ondorengo argazkian.



1998ko eta gaur egungo 1. mailako taldeak elkartu ziren zapatuko jaialdian.


Hogeitaz taldek hartu zuten parte erritmikako Sanandresetan

LEHENENGO MAILAN, GAINERA, IPURUAKO NESKAK IZAN ZIREN ONENAK. Seniorretan, bestalde, Ritmika Alaia; juniorretan, Bizkaiko Sakoneta; infantiletan, Donosti Kluba; eta, alebinetan, Iruñeko Anaitasuna. Erakustaldi bikaina egin zuen 12 urteko Daria Anenkovak ere, Errusiako gimnasia erritmikoko selekziokoak. Ekitaldi berezia izan zen, Ipurua taldea 1. mailan 1998an debutatu zuen taldeko partaideei omenaldia egin baitzitzaizen: Lur Ibarrek, Ane Susaetak, Leire Zamakolak, Vanessa Cardeñosak eta Miriam Merinok osatu zuten talde handi hura eta bostak izan ziren Ipuruan.

Arrate protagonista txirindularitzan

EUSKAL BIZIKLETAN HARTUTAKO BIDEARI JARRAITUZ, azken urteetan Euskal Herriko Itzulian ere etapa bat Arraten amaitzen bada urtero, hurrengo edizioan Espainiako Itzuliko etapa batek ere amaiera izango du gure herriko gainan (abuztuaren 20an). Aurretik beste etapa bi amaitu ziren Arraten, Tamamesen garaipenekin.


Gipuzkoako klubaren arteko igeriketa txapelketa



URBAT-URKOTRONIK IGERIKETA TALDEAK IAZ LORTUTAKO 4. POSTUARI EUTSI nahi dio asteburuan Irunen jokatu den probintziako klubaren arteko Kopan. Azken asteburuan, bestalde, Euskal Herriko lurraldeen arteko txapelak izan dira jokoan eta hor Ane López, Iratxe Moya, Ioar Urkiri eta Ander Izagirre infantil mailako Eibarko ordezkariak nagusi izan ziren, Gipuzkoako taldekideekin batera, euren probetan. Benjaminek eta alebinek, euren aldetik, Oñatin egin zuten denboraldiko debuta.

Hierros Anetxeko errugbilariak badoaz sailkapenean

LIGA AMAIERAN ERABAKI-GARRIA IZAN DAITEKEEN GARAIPENA ESKURATU ZUEN ZAPATUAN Eibar Hierros Anetxek Zarautzeko Asti zelaian. Ez zen partidu polita izan, baina bai borrokatua eta 6-17ko azken emaitzak eibartarrendantik bost puntura lagatzen du sailkapenean kostaldeko taldea. Meritu handiko garaipena izan zen Isasaren mutilena, partidu erdia baino gehiago jokalaria bat gutxiagorekin jokatu behar izan zuelako Eibar Rugbik Mikel Basterretxea txartel gorri zuzenarekin kaleratu ondoren. Domekan, lehen itzulia amaitzeko, Atlético San Sebastian hartuko dute eibartarrek Unben: irabaziz gero, garaipenen plenoa eskuratuko dute eibartarrek.



ka gogorra izan zuen bere estreinaldian Getxoren aurka, Euskal Herriko talde onena baita bizkaitarrena. Unben izan ziren ikusleak pozik geratu ziren Eibarko taldeak erakutsitako mailarekin, behin baino gehiagotan merezi izan zuten entsegurik lortu ez bazuten ere.

Nesken porrot duina

Nesken taldeak norgehiago-

Astigarraga Euskadiko txapelkun

ASOLA-BERRIKO BITTOR ASTIGARRAGAK IRABAZI DU EUSKADIKO XXII. HIRU-TXIRLO TXAPELKETA, 17 txirlorekin guztira. Txirlo bakarrera geratu da Iruzubietako Juan Txurruka eta bira Aitor Etxaniz eibartarra. Bikoteka ere Astigarraga izan da onena, Bittor Ugarteburu lagun izanik eta, azkenik, taldeka, nagusitasun osoz irabazi du Asola-Berri A taldeak.

Salgado azpitxapelduna squash-ean

SERGIO SALGADO KLUB DEPORTIBOKO ORDEZKARIA BIGARREN SAILKATU ZEN hilaren 18an eta 19an Zarautzen jokatutako Euskal Ligako torneoan. Berarekin izan ziren torneoan beste lau eibartar: Jon Arana, Jon Losada, Oscar Ferreiro eta Asier Manzano. Salgado debarrak Liam Kane handiari irabazi zion.



Zuzendaritzak aurkeztutako kontuak onartu ziren barixakuan egindako batzarrean. / ARTXIBOA

Eibar KE-ren kontuak onartuta

AURREKO BARIXAKUAN EGINDAKO BATZARREAN, EIBAR KIROL ELKARTEKO akzionistek 2011-12 denboraldirako aurekontua onartu zuten. Bi milioi eurora ez da iritsiko aurrekontu hori (1.925.000) eta, iazkoarekin alderatuz, 700.000 eurotan jaitsi dute. Azken denboraldian, bestalde, 617.000 euroko galerak izan dira.

Palentzian domekan (15.30)

Mandiolaren mutilak, bestal-

de, gero eta zuhurrago doaz mailari eusten eta azken aldian emaitza onak lortu dituzte. Sailkapeneko 3. postuan daude, Mirandés liderrarengatik 8 puntura. Palentziako La Balasteran jokatuko dute hurrengo jardunaldia, etzi arratsaldeko 15.30-etatik aurrera. Eta, eguaztenean Ipuruan jokatutako Alberto Ormaetxearen omenezko lagunartekoan, Eibarrek 0-1 galdu zuen Realarekin (Joseba Llorenteren gola, jokoz kanpo).

23 eibartar Donostiako maratoian

120	Cristina Loeda	2:49:02	1229	Leandro Luengo	3:28:01
289	Abdelmalik Samadi	2:57:42	1262	Ibon Martín	3:29:35
404	Iosu Lahidalga	3:00:30	1488	Alberto Sáenz de Viteri	3:37:44
441	Iñigo Trokaola	3:02:36	1597	Jose Ignacio Telleria	3:40:38
538	Eduardo De Miguel	3:07:11	1595	Josu Trebiño	3:42:07
559	Igor Azurmendi	3:07:55	1679	Alexander Telleria	3:45:14
691	Carlos Pérez Obanos	3:11:52	1681	Ana Ramírez	3:45:16
787	Eduardo Uribe	3:15:00	1775	Fco. Manuel López	3:48:38
1002	Fermin Murillo	3:22:53	1908	Luis Manuel De Blas	3:55:20
1033	Juan Luis Azkune	3:23:28	2037	Aitor Zubikarai	4:04:54
1129	Javier Etxaniz	3:25:40	2182	Fernando Serrano	4:30:45
1161	Igor Gómez	3:26:43			

Titin-Barriola nagusi Xalaren aurrean

HERENEGUN SAN ANDRES JAIEN BARRUAN ASTELEENAN JOKATUTAKO jaialdian, Titin III.ak eta Barriolak osatutako bikoteka garaile izan zen partidu nagusian, Xala gaur egungo banakako txapelkunari eta Merino II.ari 22-14 irabaziz.

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik osasun zentru eta etxeetan egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA: Txalixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ☎ 943 201095 fax: 943 202564




Bakillau lehiaketako irabazliak




Azokako eta pintxo lehiaketako irabazliak

EGURALDIXA LAGUN




Eguaztenian giro edarian juan zan San Andres eguna gurian. Eguraldixa lagun, jende mordua alkartu zan goizetik Untzaga eta inguruan San Andres azokiak eta bere inguruan antolatutakuak erakarrirta. Aurtengo ediziñuan sarixa eruan dabenak hónetxek izan dira: barazkixetan Peio Rubio (Txilarre, Elgoibar) eta Alejandro Arrieta (Xemein Gain, Markiña); frutetan Tomás Mayora (Agerre Berri, Gabiria); eztixetan Fernando Lizarralde (Oñati) eta Josune Epelde (Urretxu); gaztaietan Aizpea E. Z. (Olaberria) eta Jesus Mari Ansola (Mausitxa, Elgoibar); ogixetan (Luis Mari Osa (Mallabia) eta Jesus Zaldua (Zumarraga); presentaziño dotorienak Peio Rubioren eta Aitor Gisasolarena izan ziran; eta Aitor Gisasolak jaso eban baitta Eibarko basarri onenari sarixa. Dana dala, asteburuan be sanandresetako programaziñuarekin lotutako ekitaldixak ospatu ziran: zapatua Txirindularixen alkar-tekuak antolatutako VIII. Txistorraren Eguna izan zan protagonista egun osuan Untzagan eta domekan, barriz, Eibarko Bakillauaren Kofradixaren XVIII. Kapituluaren barruan Ohorezko Kofrade izendatu zittuen Asier Cuevas, Iñaki Orbegozo eta Jose M^a Cornago eta Juan Ortega Antzerki Jardunaldixetako antolatzailiak. Horrekin batera, bakillau txapelketia be jokatu zan eta aurtengo irabazliak iazko berberak izan ziran: Txinberako Alexander Bailerón eta Juan Luis Vilanova. Bigarrenak Matias Ezenarro eta Elena Zabala (Loretoki) izan ziran eta hirugarrenak Jon Peña eta Jose Angel Fuente (Muskerra II).

argazkiak: EKHI BELAR & LEIRE ITURBE



Bakillau lehiaketa



Basarritarrez jantzitta



Sanandresak Gasteizen



Bertso jaialdixa



Ganadu azokia



Produktuen azokia



Plazara Dantzara

Euskararen Eguna ospatzen

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA GOGORATUKO DA BIHAR ETA, HORI OSPATZEKO, hainbat jarduera berezi antolatu dituzte Udalak, ... eta kitto! Euskara Elkarteak, Udal Euskaltegiak, AEK Euskaltegiak eta Eibarko Euskal Herrian Euskaraz-ek, Diputazioak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak babestuta. Egitaraua aurreko eguenean eman zuten ezagutzera, Portalean egindako aurkezpenean. Bate-tik, Foru Aldundiak egindako proposamenari jarraituta, Mintzodromoa ipiniko dute martxan Untzagan. Helburua, Eibarko erakunde eta elkarteetako kideak batu eta euskeraz berbetan jardutea da. Horretarako lau lagun batu eta mahai baten inguruan ipiniko dituzte udaletxeko sarreran, zerbait

hartzten duten bitartean. Gaur eguerdian Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasleek jardun dute eta bihar 12.00etatik 14.00etara parte hartzera animatzen diren eibartarren eta elkarteetako ordezkarien txanda izango da. Udaletxeko sarreran (patioan) egongo dira Mintzodromorako prestatuko dituzten mahaiak. Egun bitan garatuko den ekimenean guztira 80 bat lagun elkartzea espero dute antolatuzaileek.

Bestalde, zapatarako Gurasoak Berbetan Eguna antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Untzagan karpa handi bat ipiniko dute bihar (11.00etatik 13.30etara eta 17.00etatik 20.00etara) eta bertan eskulanak, jolasak eta erakusketa egongo dira martxan, besteak




Azaroaren 24an aurkeztu zuten Portalean Euskararen Eguneko egitaraua./ FELIX MORQUECHO

beste. Egitaraua honakoa izango da: 11.00etatik 12.00etara eskulan tailerrak (HH eta LH), 12.30etatik 13.30etara jolasak (adinarean arabera banatuta), 11.00etatik 13.30etara gurasoendako aisialdi eskaintzaren erakusketa eta aholkularitza (globoak banatuko zaizkie ume guztiei), 17.00etatik 18.00etara Peio Añorga ipuin kontalaria (HH4-LH1), 17.00etatik 20.00etara gurasoendako aisialdi eskaintzaren erakusketa eta

aholkularitza, 18.00etatik 19.00etara koko-jantzi eta makilaje tailerrak eta 19.00etatik 20.00etara DJ Arno. Antolatzaileek Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gurasoak eta umeak erakarri nahi dituzte, gurasoak seme-alabei euskerarekiko jarrera positiboak erakusteko duen garrantziaz jabetu daitezten. Ekitaldiak herritar guztientzat musutruk eta zabalik egingo dira eta, beraz, denak gonbidatuta zaudete.

Sutegi Antzerkiak "Diez Negritos" antzeztuko du

ABENDUAREN 9-AN, 22.15-ETAN AURKEZTUKO DU SUTEGI TALDEAK "DIEZ NEGROS", Agatha Christie-ren liburuan oinarritutako antzezlanaren Ermua antzokian (sarrerak 8 euro balio du). Juan Carlos Colinak zuzendutako antzezlanaren Eibar eta Ermuko aktoreek jardungo dute: Sindy Otero, Gorka Errasti, Eneko Grande, Vanessa Rodríguez, Jaime Lucas, Amaia Escalera, Virginia Herrera, Sergio Iglesias, Ander Prol, Natalia Cabana eta Piedi Kortazar. Jantziekin Esther Ba-



rrero arduratu da eta musika Xabier Albarranena da.



Xabier Montoia Karrikan

DOMEKAN XABIER MONTOIA KARRIKA TABERNAN IZANGO DA, 20.30-ETAN "Montoiaren Mundu Miresgarria" diskoa aurkezten. Berari laguntzen azken lan honetan jardun duten Ibon RG (gitarra) eta Maite Arroitauregi (txeloa) ere izango dira. Hamar urteko ixilunea eta gero,

disco berriaren inguruan osatu duen bandarako eskarmentu handiko musikariak erakarri ditu: aurretik hainbat emanalditan lagun izan duen Ibon RG (gitarra) eta pianoan eta txeloa, berriz, Maite Arroitauregi (Mursego) eibartarra, sormen handiko musikaria.



Euskal Astea Aldatzen

ALDATZE IKASTETXEAK HAINBAT EKITALDI BEREZI ANTOLATU DITU AZAROAREN 28-AN HASI eta gaur arte Euskal Astea ospatzeko. Egitaraua azaroaren 25ean hasi zen, Probidentzia jaiarekin; ondoren San Andres azoka antolatu zuten bezperan gurasoen, ikasleen eta irakasleen laguntzaz, "Alda-

tze atzo, gaur eta beti" aurtengo azokarako aukeratutako gaiaren inguruan eta, horren harira, eskolako txokoa antzinako eta gaur egungo tresnekin apaindu zuten; eta asteari agur esateko hainbat lehiaketa prestatu dituzte ikasleentzat: irrinti-lehiaketa, pintxo-lehiaketa, arto bilketa, logotipo lehiaketa...

Seiluak domekara arte ikusgai Portalean

DOMEKARA ARTE PORTALEAN, ERAKUSKETA ARETOAN IKUSGAI EGONGO DEN EXFIBAR 2011 XLII. Seilu Erakusketak aurreko domekan zabaldu zituen ateak eta inaugurazio ekitaldian, ohikoari jarraituta, saritutako bildumagileei sariak banatu zizkieten. Erakusketako sari nagusia den Udalaren garaikurra Angel González donostiarrek eskuratu du eta saritutako beste bildumagileak honakoak izan dira: Segundo Heredia (Huelva), Antonio Tristán (Donostia), Isidro Rejo (Eibar), Fidel Caballero (Areeta), Josefina Toirán (Algorta), Javier de Sebastián (Barakaldo), Manuel Medina (Cádiz), Sebastián Amaro (Huelva), Roberto Murga (Portugaleta), Francisca Martínez (Sestao), Jose Carlos López (Sorluze), Antonio Hernández (Alella), Antonio Márquez (Moguer),




Moisés Hernández (Tarragona) eta Josep-Lladó Aragonés (Tarragona). Edizio honetan Armagintzaren historia gai nagusizat duen seilu-bildumak batzen dituen erakusketa ordutegi berezian zabal-tzen dihardute: gaur 18.00etatik 20.00etara egongo da zabalik eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara.

Deporreko argazkilarien erakusketak

ATZOZ GEROZTIK ETA ABENDUAREN 31-RA BITARTEAN PEDRO ARRIOLAREN "RUSIA" ARGAZKI ERAKUSKETA IKUSGAI izango da Portalea tabernan eta El Ambigú tabernak, berriz, Jose Luis Irigoien argazki erakusketa hartuko du urtearen amaierara arte. Bestalde, abenduaren 9tik 30era arte Portaleko erakusketa aretoan taldekako erakusketa izango dute martxan taldeko ki-deak diren José Luis Martínez, Mikel Orozko, Bakarne Elejalde,

Pedro Arriola, José Luis Irigoien, Alberto Luke, Jose Valderrey, José Vila, Eduardo Magunazelaia, Jose Ignacio Aizpuru, Carlos Ramos, Einer Rodríguez, Juan Antonio Palacios, Zigor Astigarraga, Fernando Retolaza, Aitor Sarasketa, Federico Cuenca, Enrique Albistegi, Virginia Arakistain, Vicente Eizagaetxerria, Jose Ignacio de Castro eta Alex Bergarak. Erakusketa ohiko ordutegian zabalduko dute, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.



Arriolaren lanak Portaleko tabernan ikusgai.



Pirritx eta Porrotx-en ikuskizuna

ABENDUAREN 10-EAN (16.30ETAN ETA 19.00ETAN) ETA 11-N (16.00ETAN ETA 18.30ETAN) Pirritx, Porrotx eta Marimotots Hezkuntza Esparruan izango dira, "Zazpikoloroa" ikuskizuna aurkezten, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik (sarrerak 7 eurotan salgai, Tio Palancas, Gozoki eta e&m argazki-dendan). Ahal dela garraio publikoa erabiltzeko eskaera egin dute antolatzaileek eta sarre-ra barik ez zaiola inori sartzen lagako jakinarazi dute.

Koko-marruen inguruko erakusketa

ABENDUAREN 15-EAN HASI ETA URTARRILAREN 27-RA ARTE KEZKA DANTZA TALDEAREN ESKUTIK 2008az geroztik antolatzen diren koko-marruen inguruko erakusketa hartuko du Armagintzaren Museoak. Besteak beste konpartsak baserririk baserri ibiltzen direnean erabiltzen dituzten jatorrizko jantziak ikusteko aukera izango da erakusketan.



Santa Barbara Museoan

ARMAGINTZAREN MUSEOAK ABENDUAREN 4-AN, DOMEKAN, SANTA BARBARA EGUNA OSPATUKO DU, ate irekien jardunaldiarekin. Artillerien eguna dela aprobetxatuta, nahi duenak Portalean 5. pisuan dagoen museoan bisita egiteko aukera izango du, 10.00etatik 13.30etara, sarrera ordaindu barik.

laburrak

ESTHER GALARZA TOPALEKUAN

Abenduaren 9an hasi eta 18ra arte Esther Galarza artistaren zeramika lanak ikusgai izango dira Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan. Astegunetan 19.00etatik 21.00etara egongo da zabalik erakusketa eta zapatu eta jai-egunetan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.

TXURI URDINERA

Gaztetan Neguan programaren barruan, abenduaren 18rako irteera prestatu dute 12-16 urteko gazteentzat. Izena emateko epea San Andres bezperan zabaldu zen eta domekan, hilaren 4an itxiko dute. Interesatuak Indianokua Gaztelekuaren eman dezakete izena, 18.00etatik 20.00etara (10 euro).

AMODIOZKO GUTUNAK

Jardun Bergarako Euskara Elkartek Amodiozko Gutunen XX. edizioa ipini du martxan. Lanak jasotzeko azken eguna 2012ko urtarrilaren 7a izango da eta hainbat sari banatuko dituzte: 500 euro (1. saria), 250 (2. saria), 150 euro (Bergararen onena) eta 26 urtetik beherakoekin artean onenari saria. Informazio gehiagorako www.jardun.net webgunera jo daiteke.

Euskal kulturarendako urteko hitzordurik garrantzitsuena bilakatu den Durangoko Azokaren 46. edizioari ekiteko egun gutxi falta dira: aurten abenduaren 4tik 8ra bitartean egongo da zabalik, 10.30etatik 20.00etara, betiko moduan Landako gunean. Urtero banatu ohi den Argizaiola saria aurten Iñaki Beobidek (Zumaia, 1934) jasoko du eta, era berean, Azokaren antolatzailea den Gerediaga Elkarteak atzo bertan jaso zuen Lauaxeta Saria, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik.



Domekan zabalduko dute Durangoko Azoka

Denera 434 izenburu berri aurkeztuko dituzte oraingoan kultura galegoa gonbidatu izango duen Azokan: 313 liburu, 63 disko, 23 aldizkari, 9 bideo, 15 liburu elektronikoa eta beste era bateko 11 argitalpen. Stand kopuruan murrizketa izan dela ere aipatu zuten Gerediagakoei aurkezpena egin zutenean: 274 stand egongo dira orotara, iaz baino 9 gutxiago, "argialetxe batzuk mahai gutxiago eskatu dutelako, krisiaren eraginez-edo".

Aurtengo gonbidatua kultura galegoa izango da eta, horregatik, Culturгал elkartearekin batera hainbat ekitaldi berezi antolatu dituzte. Besteak beste Anton Reixa abeslariak "Galizia denok gara" hitzaldia emango du eta Mikel Urdangarinek, Acrobatak taldearekin batera,

herri musiken aberastasuna erakusteko ikuskizuna eskainiko du Plateruena Kafe Antzokian. Herralde gonbidatua, berriaz, Kurdistan izango da.

Hiru guner berri

Stand gutxiago izan arren, guner gehiagorekin zabalduko ditu ateak aurten Azokak: Irudienea, Szenatokia eta Kabi@ izenekoak aurretik zeuden beste lauei batuko zaizkie (Aretoa, Durango, Haur Literatur Aretoa eta Ahotsenea izenekoei).

Irudienea Topagunearrekin batera sortu da eta euskarazko ikus-entzunezko sorkuntzaren erakusleho izango da (autobus baten barruan egingo dira ekin-tza guztiak). Szenatokia Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearekin elkarlanean prestatu dute eta euskarazko antzerkigintza

Eibar Azokan.- Badihardugu Euskara Elkarteak, urteroko moduan, stand-a izango du Azokan eta bertan gure eskualdeko argitalpenak eskainiko dituzte, tartean Eibarko izenburu hauek:

- "Deba ibarreko euskaria"
- "Eibarko aditza"
- "Eibarko deklinabidea"
- "Eibarko esakerak"
- "Eibarko euskararen gutxiespenaren historia"
- "Eibarko euskara: gure hizketaren doinu eta berbak"
- "Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea"
- "Eibarko gatzizenak"
- "Eibarko hiri toponimia"
- "Eibarko Hiztegi Etnografikoa"
- "Lexicón"
- "Unidade didaktikoa"
- "Zirikadak" eta "Eztenkadak"
- Kalamuako Parlamentua (mahai-jokoa)
- "Mercedes Kareaga"
- "Eibar, Tintaz eta lumaz"
- "Eibarko elkarte gastronomikoak"
- ...eta kitto!-ren Bandoa
- "Eibarko historiaren laburpena"
- "Eibarrera jatorraren bidetik"
- "Kantu Liburua"

eta antzerkizaletasunaren topaleku izango da. Eta Kabi@ sarean eta euskarri teknologiko berrietan euskaraz garatzen direnen erakustokia izango da (aurten, gainera, euskarazko wikipediaren 10. urteurrena ospatzeko edizio-maratoia egingo da). Eta Azokaren inguruan, no-

la ez, ekitaldiz gainezka egiten duen programa ere antolatu dute. 200 ekitalditik gora hartuko ditu Durangok datozen eguntan, denak Azokarekin lotutakoak. Horiek guztiak, Azokaren inguruko informazio guztiarekin, www.durangokoazoka.com webgunean jaso dituzte.



Larragest

INMOBILIARIA AGENTZIA

E-010

HELBIDE BERRIA

F. Calbetón, 22-24

Tf. 943 200 012

Mob. 690 610 715

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IZAR, domekan bi urte bete zenduazena-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AINHOA Egurrola, hillaren 4an bi urte egingo dozuz-eta. Laztan haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, MARKEL, gure ume polittak gaur urtebete egingo dau-eta. Aitta, ama, aitxitxa, amama eta osabaren partez.




Zorionak, IZARO, atzo lau urte egin zenduazelako, printzesa. Patxo haundi bat aitta, ama eta Ekainen partez.




Zorionak, KELYA, martitzenian urtiak egin zenduazena-eta. Ander eta Markel zure lehengusuen eta famelixaren partez.




Zorionak, PAULA Ros Lasuen, hillaren 9xan zazpi urte egingo dozuzelako. Famelixaren partetik.




Zorionak, JULETXO, gure txokolatzeko bihotza, bixar lau urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MARTIN Elortza Aristi, hillaren 7xan urte bi beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, OIHAN Goitandia, atzo hiru urte egin zenduazena-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, ALEJANDRO, atzo urte bi egin zenduazena-eta. Gurasuen partez.

zinea Coliseoan



"In Time"

Zuzendaria: Andrew Niccol
Aktoreak: Olivia Wilde, Alex Pettyfer, Amanda Seyfried, Justin Timberlake


2an: 22.30
3an: 17.00, 19.45, 22.30
4an: 17.00, 20.00
5an: 20.30
6an: 17.00, 20.00



"El gato con botas"

Zuzendaria: Chris Miller
Pertsonaiak: Gato, Kitty Zarpasauaves, Dumpty, Jack

2an: 22.30
3an: 17.00, 19.45, 22.30
4an: 17.00, 20.00
5an: 20.30
6an: 17.00, 20.00



"Fuga de cerebros 2"

Zuzendaria: Carlos Therón
Pertsonaiak: Patricia Montero, Adrian Lastra, Alberto Amarilla, Canco Rodríguez

2an: 22.30
3an: 19.45, 22.30
4an: 17.00, 20.00
5an: 20.30
6an: 17.00, 20.00

HILDAKOAK

- Visitación Arrillaga Ansola. 83 urte. 2011-XI-23.
- Iñaki Berroya Laborda. 90 urte. 2011-XI-23.
- Severino Hernández Sevillano. 85 urte. 2011-XI-24.
- Eugenio Gabilondo Alberdi. 80 urte. 2011-XI-27.
- Carmen González Estella. 91 urte. 2011-XI-28.
- Juan Ignacio Etxeberria Egaña. 86 urte. 2011-XI-29.

JAIOTAKOAK

- Markel Gerenabarrena Yarza. 2011-XI-22.
- Unai Alvarez Solana. 2011-XI-24.
- Emma Txurruka Marín. 2011-XI-24.

horoskopoa

ARIES

Odol hotzeko pertsona zara, baina berotuta ibiliko zara hurrengo egunotan. Ea berotasun hori nola hozten duzun; kostatuko zaizu.

TAURUS

Bidaia luzea egiteko gogoarekin zaude, baina astroek ez zaituzte Eibartik oso urrun ikusten. Hemen gauza ederrak ere dauzka, trankil.

GEMINI

Gauza berriak probatzeko gogo duzu. Ba, lasai, datorren astean kontu interesgarriak gertatuko zaizkizu-eta! Halakorik ikusteko...

CANCER

Broma bat egingo diozu lagun bati, baina berak txarto hartuko du eta ez dio bat ere graziarik egingo. Egia esateko, oraingoan pasatu egin zara.

LEO

Beste leku batera ihes egiteko gogo izango duzu domekan. Zurea da errua, zuk sortu baituzu egoera hori. Orain aurre egin beharko diozu.

VIRGO

Altxorra aurkituko duzu egun gutxitan! Ez zara diruz aberastuko, baina zure barrenak astinduko dizkizun zerbait aurkituko duzu.

LIBRA

Atsedena hartzeko egunak iritsi dira zuretzat. Udatik hona gelditu barik ibili zara lanean, eta behingoz egun lasaiak pasako dituzu. Bazen ordua!

SCORPIUS

Gabonetako Loterian ez parte-hartzea gomendatzen dizute astroek, zorte handirik ez baitzue iragartzen. Dirua aurreztuko duzu loteria erosi barik.

SAGITTARIUS

Askotan barkamena eskatzea ez da nahikoa, egindako minak jarraitzen duelako. Hala ere, argi dago zuk ez daukazula inongo gaitzotasunik.

CAPRICORNIUS

Liburu bat idazteko hadina abentura biziko dituzu datorren astean. Idaztea nahi baduzu, egin azkar, Durangoko Azoka zabaltzear dago-eta.

AQUARIUS

Alperkeria atzean laga eta martxan jarriko zara. Izango duzun gauzak egiteko gogoak inoiz baino bizigogo gehiagorekin sentitzea ekarriko ditu.

PISCIS

Bapo jan zenuen San Andres azokan. Igarzen da taloak asko gustatzen zaizkizula. Eta Gabonak datoz... kilo batzuk hartuko dituzula ematen du.

Barixakua 2

MINTZODROMOA
11.00/12.30.- Lehen Hezkuntzako ikasleak.
12.30/14.00.- DBH eta Batxilergoko ikasleak. Udaletxeko sarreran (patioan).

Zapatua 3

GURASOAK BERBETAN EGUNA
11.00/13.30 eta 17.00/20.00.- Untzagan, karpan.
11.00/12.00.- Eskulan tailerrak (HH eta LH).
11.00/13.30.- Gurasoei zuzenduta, aisialdi eskaintzaren erakusketa eta aholkularitza zerbitzua. Globoak banatuko zaizkie bertaratutako ume guztiei.
12.30/13.30.- Jolasak (adinarean arabera banatuta).
17.00/18.00.- Peio Añorga ipuin kontalaria (HH4-LH1).
17.00/20.00.- Gurasoei zuzenduta, aisialdi eskaintzaren erakusketa eta aholkularitza zerbitzua.
18.00/19.00.- Koko-jantzi eta makilaje tailerrak.
19.00/20.00.- DJ Arno.

MINTZODROMOA
12.00/14.00.- Eibartarrak eta elkarteetako ordezkariekin. Udaletxeko sarreran (patioan).

TITIRIJAI 2011
17.00.- XXIX. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia. "Zheng-He, cuando llegaron los barcos dragón" (Karin Schäfer Figuren Theatre, Austria). Sarrerak: 4 euro. Coliseoan.

Domeka 4

SANTA BARBARA
10.00/13.30.- Santa Barbara eguna ospatzeko, sarrera doan Armagintzaren museoan (Portalean, 5. pisua).

KONTZERTUA
20.30.- "Montoiaren mundu mireagarriak" diskoaren aurkezpena. Xabier Montoia, R.G. (gitarra) eta Maite Arroita-jauregi (txeloa). Karrikan.

Barixakua 9

ANTZERKIA
22.15.- Agatha Christie-ren "Diez negritos", Sutegi antzerki taldearekin. Sarrera: 8 euro. Ermua antzokian (Ermuan).

Zapatua 10

PAILAZOAK
16.30 eta 19.00.- Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen "Zazpikoloroa" ikuskizun berria. Hezkuntza Esparruan.

KONTZERTUA
20.00.- Oscar Candendo-ren organo kontzertua. San Andres elizan.

Domeka 11

KONTZERTUA
12.30.- Usartza Txistulari Bandaren Gabonetako kontzertua. Udal-arkupeetan.

PAILAZOAK
16.00 eta 18.30.- Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen "Zazpikoloroa" ikuskizun berria. Hezkuntza Esparruan.

Astelehena 12

JARDUNALDIAK
19.00.- "La situación laboral de las trabajadoras de hogar". Portalean.

Martitzena 13

IKASTEN
10.00.- "Curiosidades antropológicas", Urko Barros-en eskutik. Armeria Eskolan.

HITZALDIA
19.30.- "Socialismo marxistaren proiektu ekonomiko-politikoak", Pako Garmendiaren eskutik. Portalean.

Eguaztena 14

JARDUNALDIAK
19.00.- "La situación laboral de las trabajadoras de hogar". Portalean.

Eguena 15

IKASTEN
10.00.- "La literatura infantil como conducto relacional con los niños (1. zatia)", Jone Arroita-jauregi-ren eskutik. Armeria Eskolan.

EGOIBAR ZINEKLUBA
17.30 eta 21.00.- "El Cairo 678" (Mohamed Diab). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan

ODOL ATERATZEA
18.00.- Odol ateratzea, odol-emaileentzat. Gipuzkoako Odol Emaleen elkartearen (Pagaegi, 3).


SUDOKUA

	8	3					
		9			5	6	
	5			2	1	4	
		8	4	1			
				2			
			8	9	1		
2	3		7			8	
6		1			9		
					3	7	

DENBORAPASAK

5	9	2	8	0	3	7	1	4
4	6	1	9	7	2	0	0	5
3	7	8	4	1	5	2	0	0
2	1	3	8	5	4	0	7	9
6	5	7	3	2	0	4	0	1
8	4	3	1	6	7	5	2	0
1	2	4	2	6	8	0	9	7
3	8	6	5	4	1	0	0	2
0	2	5	7	3	6	1	4	0

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

– Abenduaren 3ra arte

GARAGUNEkoen pintura erakusketa. *Untzagako jubilatutxean* (gaur 19.15etatik 21.15etara eta bihar 12.00etatik 14.00etara). *Topalekuan*.

– Abenduaren 4ra arte

JOSE LUIS VIVARen egurrezko tailuak. *Topalekuan*.

EXFIBAR 2011 XLII. Seilu Erakusketa. Armagintzaren historia gogoan. *Portalean*. Ordu-tegi berezia: asteleheneetik barixakura (18.00-20.00) eta zapatu eta domeketan (12.00-14.00 eta 18.00-20.00).

– Abenduaren 31ra arte

PEDRO ARRIOLAren "Rusia" argazki erakusketa. *Portalea tabernan*.

JOSE LUIS IRIGOIENen argazki-erakusketa. *El Ambigú tabernan*.

– Abenduaren 9tik 18ra



ESTHER GALARZAren zeramika erakusketa. *Topalekuan*.

– Abenduaren 9tik 30era

KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAren erakusketa. *Portalean*.

– Abenduaren 15etik urtarrilaren 27ra

"KOKO-MARRUAK". Armagintzaren Museoa.



lehiaketak

– **Ruben Cortijo Memoriala I. Argazki Lehiaketa**.

Gaia: San Andres Azoka. Lanak entregatzea: Laurel & Hardy Pub (Untzaga, 11). Abenduaren 11ra arte.

farmaziak

2, barixakua

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

3, zapatua

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

4, domeka

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

5, astelehena

EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

6, martitzena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

7, eguaztena

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

8, eguena

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

9, barixakua

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

10, zapatua

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

11, domeka

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

12, astelehena

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

13, martitzena

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

14, eguaztena

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

15, eguena

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

16, barixakua

EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR**. Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR**. Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR**. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR**. Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR**. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR**. Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR**. Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR**. Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **BILBO-EIBAR**. Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Barrena 7, 1. solairuan. 2 logela, egongela, sukaldia eta bainua. Egin berria, estreinatu barik. 150.000 euro. Tel. 662-086738.

– Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela-jangela, sukaldia eta komun bi. Garajea eta trasteroa. Eraiki berria eta jantzita. Saltzeko presa dugu. Tel. 618-400241 eta 648-848581.

– Pisua salgai Deban, Osio kalean. 3 logela, jangela-egongela, sukaldia eta komun. Igogailuarekin. Berriztuta. 205.000 euro. Tel. 645-186309.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Amañan. 3 logela, egongela txikia, sukaldia, komun eta balkoia. Jantzita. Eguzkitsua. Tel. 627-819186 eta 600-436615.

– Pisua alokagai Ermuan. Bi logelakoa. Igogailua. Prezio onean. Tel. 661-653160.

– Familia batek bi edo hiru logelako pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 673-025316.

– Asola-igartzan babes ofizialeko atikoa alokagai denboraldi batean kanpoan lan egin behar dudalako. Inkilinoaren soldataren arabera prezioa (186-426 euro artean). Garajearekin. Berria, estrenatzeko. Tel. 617-926344.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Marradun garajea alokagai udaletxearen ondoan. Handia. 75 euro. Tel. 647-952677.

– Ileapaindegi berria alokagai arazo pertsonalengatik. Prezio onean. Tel. 667-806737.

– Asua-Errekan garaje itxia alokagai. Tel. 678-426136.

– Urkizu inguruan garaje marraduna alokagai. Tel. 609-453946.

– Bi garaje alokagai Abontzan. Bata marraduna eta bestea itxia (handia). Tel. 617-688311.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauek PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanerako. Tel. 669-966611.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 659-037882.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta mekanizatuetak edo pintore lanak egiteko. Tel. 656-781743.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 695-303237.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 608-147559.

– Emakumea eskaintzen da jostun lanak edo garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 617-043058.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 679-103469.

– Neska eskaintzen kamarera jarduteko, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 675-607031.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Tel. 658-371925.

– Neska eskaintzen da kamarera jarduteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 627-162936.

– Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko. Tel. 673-025316.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 676-858210.

– Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko eta nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel. 652-532589.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.

– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko. Tel. 638-527489.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 638-153016.

– Mutila eskaintzen da kamarero eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 943-257815 eta 692-332871.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 943-257815.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo haurrak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 609-148861 eta 943-257815.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 608-180132.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernak eta soziedadeak garbitzeko. Tel. 689-974001.

– Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Tel. 699-232823.

– Mutil gaztea eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan eta nagusiak zaintzeko. Erabateko disponibilitatea. Tel. 615-720384 eta 943-257815.

– Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta haurrak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 669-068439.

– Emakumea eskaintzen da haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Externa edo orduka. Tel. 623-150376.

– Neska eskaintzen da haurrak zaintzeko eta klase partikularrik emateko. Tel. 660-353703.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 638-338816.

4.2. Langile bila

– Kamarera behar da asteburuetarako. Tel. 659-539861.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Lizentziadunak DBHko Matematikazko eta Fisikako klaseak ematen ditu. Tel. 943-702089.

– Euskerazko klaseak ematen dira: azterketetarako prestaketa, perfilarik, EGA, HABEren mailak. Tel. 620-608065.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bizikleta estatikoa salgai. Oso egoera onean. 190 euro. Tel. 620-608065.

– Haurrentzako Loola Up aulkia salgai. Maxi-cosiarentzako egokitzailearekin. Urtebetekoa, gehigarriekin. 100 euro. Deitu arratsalde. Tel. 635-740726.

6.2. Eman

– Umearendako aulki tolesgarria oparitzen da. Deitu arratsalde.. Tel. 635-740726.

Kalitate Turistikoaren Q-a

Euskadin honezkero 273 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen zerbitzua zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria. Jardunbide egokirako programan, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude. Bereizkuntzak, formakuntza eta hobekuntzarako konpromisoa, establezimenduen kudeaketan dedikazioa eta zorroztasuna errekonozitzen ditu, kalitatearen hobekuntzarako planen bitartez. Helburu nagusia etengabeko hobekuntza da, bezeroaren zerbitzura.



ESTHER GISASOLA (Sosola nekazalturismoa):

“BEZEROAK gero eta gehiago baloratzen du Q ZIURTAGIRIAREN esanahia”

- Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?

Egiten dugun lanaren errekonozimendua lortzea, hau da, erakunde ofizial baten baieztatzea. Ezartzen dudana bigarren Q-a da eta, beraz, sisteman sinisten dudala esan nahi du horrek. Buruan daukaguna sistematizatuta edukitzeak lasaitasun handia eta lanean jarduteko orduan erraztasuna ematen du.

- Zein abantaila ekarri dizkizue Q ziurtagiria edukitzeak?

Gestio on baten bidez desberdintzea.

- Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne

funzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaitan? Eta azpiegitura kontuetan?


Etengabeko hobekuntza lortzea eta bezeroak fidelizatzea.

- Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?

Q markak ematen duen konfiantza edo prestigioa.

- Zer esango zenieke turismo arloko profesionali Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenarako animatu daitezten?

Teoria oso garrantzitsua dela, egunerokotasuna ulertu eta ordenatzeko. Hau da, lanerako ziurtasuna ematen duelako oso garrantzitsua dela.



kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?

Sistematizazioa eta etengabeko hobekuntza.

- Kalitatearen kultura zure erakunde bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?

Bezeroaren asetasun mailan oinarrituko naiz. Umilak izan behar gara eta ezadostasunak daudenean horiek onartzen jakin behar dugu.

- Beste enpresari batzuei kalitate sistema zertifikatuarekin lan egiteko gomendatuko zenieke?

Zalantza gabe, bai.

- Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?

Bezeroak gero eta informazio gehiago dauka eta Q-aren esanahia gero eta gehiago baloratzen du.

- Kalitate Turistikoaren Q-aren

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

Jardunbide egokirako programak: helburua enpresarioen “profesionalizazioa” eta jomuga-kontzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude.

Kalitate Turistikoaren Q-a programa: bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.

EFQM Bikaintasun ereduak: erakundeei kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK